

GIZA ESKUBIDEEN ASTEA 2018

Ekitaldearen sarrera

Herrikide ikastetxea osatzen dugun kide guztiok bakearekiko gure konpromisoa aldarrikatu eta jakinarazi nahi dugu, Bortxakeriaren kontrako eta Bakearen aldeko Eskola Eguna ospatzen dugun egun honetan.

Indarkeriaz eta zuzengabekeriak beteriko gizarte eta mundo honetan, bakearen apusuta berritu nahi dugu, eta, ildo horretatik, ZERA JAKINARAZI NAHI DUGU:

1. Mundua egunetik egunera bidezkoagoa, baketsuagoa eta seguruagoa izatearen erantzukizuna eta ardura pertsona guztiona da.
2. Bakea egunez egun eraikitzen da, guztion lanari esker. Eta hori lortzeko, besteekiko gure harremanak errespetuan, elkarri entzutean eta elkarriketan oinarrituak egon behar dute.
3. Bortxakeria eta beldurra guztion kalterako dira, bai horiek sortzen dituztenen kalterako, baita horiek jasaten dituztenen kalterako ere. Bortxakeriak eta beldurrak ez dute inoiz gatazka bat konpondu, hura ezkutatzeari besterik ez dute lortu.
4. Mundua aldatzea posible da, baldin eta gu geu aldatzen bagara eta besteak ere alda daitezten konbentzitzen baditugu. Ez da erraza. Bai, ordea, beharrezkoa.

Guk badakigu bakea nola eraikitzen den eta asko gara bakea nahi dugunok. Horregatik, bakea gaur bertan eraikitzen hastea proposatzen dugu, eta gogotik saiatzea gure inguruan ugaltu dadin eta mundu osora irits dadin.

Bakearen dekalogoia

- 1.- Pertsona garrantzitsua zara. Maita ezazu zure burua.
- 2.- Aintzat har itzazu zure lagunak. Segurtasuna emango die.
- 3.- Aurkitu besteekin batzen zaituen guztia, urruntzen zaituen guztiaren gainetik.
- 4.- Errespetatu itzazu iritzi guztiak. Horrela, elkarriketa eraikiko duzu.
- 5.- Ikasi entzuten, hobeto ulertuko dituzu horrela besteak.
- 6.- Saia zaitez zure eginbeharrak bukatzen. Emaitzarekin gozatuko duzu.
- 7.- Bete zure ardurak. Besteentzat beharrezkoa da.
- 8.- Jardun zaitez taldean maiz. Inork ez daki talde osoak baino gehiago.
- 9.- Elkarbanatu besteekin. Zoriontsu egingo zaitu.
- 10.- Landu bakea zure barnean; horrela, zure inguruan ere bakea zabaltzen arituko zara.